

Gurasoak, agur:

Ohar bilduma honetan azken berriak plazaratu nahi ditugu.

### MAILAKO GURASO BILERAK

Jarraian dituzue datorren astean izango ditugun bileren zerrenda.

OHARRAK:

- HH 4tik LH 3ra bitartean, bilerak 17:00etan izango dira.
- LH 4tik DBH 4 arte, bilerak 18:00etan izango dira.
- Familia bakoitzetik pertsona bakar bat etortzea eskatzen dizuegu.
- Familia bananduen egoeran, bi gurasoek etortzeko aukera izango dute.
- Bilerara etortzeko aukerarik ez baduzue, mesedez, tutoreari jakinarazi, espazioaren antolaketa ongi egin dezagun.
- Partaide guztiek musukoa jarrita etorri beharko dute.

MAILA	NOIZ	NON
HH 4	IRAILAK 21	GELA
HH 5	IRAILAK 22	GELA
LH 1	IRAILAK 23	GELA
LH 2	IRAILAK 24	GELA
DBH 1	IRAILAK 24	GELA
DBH 2	IRAILAK 23	GELA
DBH 3	IRAILAK 22	GELA
DBH 4	IRAILAK 21	GELA

### TANTA

Dakizuen bezala, aurten, COVID-19ak eraginda ezin izango da KILOMETROAK jaia ospatu eta aldi berean, hainbat ekitaldi bertan behera utzi behar izan dituzte.

Egoera honen aurrean, gure elkartasuna adieraztea ezinbestekoa ikusi du Batzordeak. Beraz, TANTA txartel bana familia eta langile guztiei helaraziko dizuegu 5 euroren truke. Gogoratu irabazleak 60.000 euro eskuratuko dituela. Norbaitek txartelik nahiko ez balu irailaren 23a baino lehen jakinarazi behar du [zarautz@ikastola.eus](mailto:zarautz@ikastola.eus) helbidera idatziz. Banaketa irailaren 25ean egingo da ikasleen bitartez. Kobrantza urriaren 15ean egingo da. **Zozketa urriaren 21ean** izango da.

### EUSKARALDIA

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko **hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da** Euskaraldia, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Euskaraldiaren **helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. 2020an, azaroaren 20tik abenduaren 4ra** egingo dugu ariketa eta aurten, norbanako bezala (**ahobizi** edo **belarriprest** izanez), parte hartzeko aukeraz gain, taldean parte hartzeko aukera ere izango dugu **arigune**-en bidez. [INFORMAZIO GEHIAGO](#).

### LITERATURIA

2020ko Literatura, udaberritik udazkenara: irailaren 25, 26 eta 27an ospatuko da Zarautzen, "*Hitza da giltza*" lelopean. Une gozoa izaten dugu kulturaz disfrutatzeko. Oso egitarau interesgarria antolatu dute aurten ere eta denok gonbidatu nahi zaituztegu izango ditugun ekitaldietara. Hemen duzue aurtengo [EGITARAU](#).

### "EMOZIOEN KUDEAKETA" IKASTAROA

Zarauzko Udaleko Prebentzio Sailak ikastaro interesgarri bat antolatu du, "Emozioen kudeaketa osasuntsua eta eraginkorra" Nerea Mendizabal-en eskutik. Erantsirik doakizue egitaraua.

## **OINBUSA – OINARRIA ETA BIDEA**

Ondoren, Zarauzko Udaltzaingoa bidalitako mezua helarazten dizuegu:

Zarauzko udaleko mugikortasun ataletik bultzatua, Zarauzko ikastetxeak eta osasun sailarekin lankidetzan aurreko urtean **“OINBUSA Zarauzko eskola bideak”**, proiektua jarri zen martxan. COVID-19ak sortutako osasun egoerak, gaur eguneko osasun gomendiotara moldatzera behartzen gaitu. Eskolarako bidea oinez edo bizikletaz egiteak osasun gomendioekin guztiz bat dator, gune itxitan (autobusa edo ibilgailutan) igarotako denbora murrizten baitu. Gure proiektuan elkargune, ordutegi eta taldekatzeak proposatzen ditugu. Hauek moldatu beharko dira osasun gomendio berrietara. Gaurko bizikidetzaren taldeetara edo sortu litezkeen talde egonkorretara moldatuz. Era berean sarrera ordutegiak izan ditzaketen aldaketak kontuan hartuz. Eskola bideen mapak ordea informazioa baliagarria ematen digu: bizilekutik ikastetxerako bide segurua zein den, zenbat denbora igaroko den bidean... Hemen aurkituko duzue informazio gehiago: <https://labur.eus/oinbus-ikastola>

Beste gabe, adeitasunez,

ZUZENDARITZA

Estimadas familias:

Con este mensaje os remitimos las últimas notas informativas.

### REUNIONES DE CURSO

Os informamos de las reuniones que celebraremos la próxima semana .

Observaciones:

- De HH 4 a LH 3, las reuniones serán a las 17:00.
- Desde LH 4 hasta 4 ESO, las reuniones serán a las 18:00.
- Os pedimos que de cada familia venga una sola persona.
- En situación de familias separadas, podrán venir ambos progenitores.
- Si no podéis acudir a la reunión, por favor, comunicarlo al tutor/a para que podamos organizar bien el espacio.
- Todos los participantes deberán venir con mascarilla.

CURSO	DÍA	LUGAR
HH 4	21 SEPTIEMBRE	AULA
HH 5	22 SEPTIEMBRE	AULA
LH 1	23 SEPTIEMBRE	AULA
LH 2	24 SEPTIEMBRE	AULA
DBH 1	24 SEPTIEMBRE	AULA
DBH 2	23 SEPTIEMBRE	AULA
DBH 3	22 SEPTIEMBRE	AULA
DBH 4	21 SEPTIEMBRE	AULA

### TANTA

Como sabéis, este año, el COVID-19 ha impedido la celebración de la fiesta Kilometroak y ha obligado a suspender varios actos.

Ante esta situación, la Junta Rectora ha visto imprescindible mostrar nuestra solidaridad. Por lo tanto, haremos os llegar un boleto TANTA a cada familia y trabajador/a de la ikastola, a cambio de 5 euros. El premio es de 60.000 euros. En el caso de que alguien no desee este boleto deberá comunicarlo antes del 23 de septiembre a través del correo [zarautz@ikastola.eus](mailto:zarautz@ikastola.eus) El reparto se realizará el 25 de septiembre a través de los alumnos y alumnas. El cobro se realizará el 15 de octubre. El sorteo será el 21 de octubre.

### EUSKARALDIA

Euskaraldia es **un ejercicio social para cambiar los hábitos lingüísticos entre los hablantes que entienden el euskara**, extendido a todos los espacios de la sociedad y limitado en cuanto al tiempo. **El objetivo principal de Euskaraldia es aumentar el uso del euskera** a través del cambio de hábitos lingüísticos de la ciudadanía. En 2020, realizaremos el ejercicio **del 20 de noviembre al 4 de diciembre** y este año, además de poder participar a nivel individual (a través de los roles *ahobizi* o *belarriprest*), también podremos participar en grupo a través de lo que hemos denominado *arigune*. [MÁS INFORMACIÓN](#).

### LITERATURIA

Literatura 2020, de primavera a otoño: **se celebrará los días 25, 26 y 27 de septiembre** en Zarautz bajo el lema "*la palabra es la llave*". Tenemos un momento dulce para disfrutar de la cultura. Han organizado un programa muy interesante y queremos invitaros a todos/as a participar de los distintos eventos. Aquí tenéis el [PROGRAMA](#) de este año.

### **CURSO “EMOZIOEN KUDEAKETA”**

El departamento de Prevención del Ayuntamiento de Zarautz ha organizado un curso muy interesante, de la mano de Nerea Mendizabal: “Emozioen kudeaketa osasuntsua eta eraginkorra”. El curso será en euskara.

### **OINBUSA – OINARRIA ETA BIDEA**

A continuación os trasladamos el mensaje enviado por la Policía Municipal de Zarautz: Impulsado desde la sección de movilidad del ayuntamiento de Zarautz, en colaboración con los centros escolares y el departamento de salud el año anterior se puso en marcha el proyecto "caminos escolares de Zarautz OINBUSA". El estado de salud creado por el COVID-19 nos obliga a adaptarnos a las recomendaciones sanitarias actuales. Hacer el camino a la escuela a pie o en bicicleta es totalmente acorde con las recomendaciones sanitarias, ya que reduce el tiempo transcurrido en espacios cerrados como el autobús o los vehículos. En nuestro proyecto proponemos puntos de encuentro, horarios y agrupaciones. Estos deberán adaptarse a las nuevas recomendaciones sanitarias. Adaptándose a los grupos de convivencia actuales o a los grupos estables que se puedan crear. Asimismo, teniendo en cuenta los posibles cambios en el horario de entrada. Sin embargo, el mapa de caminos escolares nos ofrece información útil: cuál es el camino más seguro desde el lugar de residencia al centro escolar, cuánto tiempo pasará en el camino. Aquí encontraréis más información: <https://labur.eus/oinbus-ikastola>

Sin otro particular, un saludo,

ZUZENDARITZA

---